



BASAKAITZ HLHI-ko IRAKURKETA PLANA



2018-19 ikasturtea

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
o Testuingurua.....	3
o Zentroaren ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan.....	3
2. Diagnostika.....	4
o Irakurketaren inguruko indarrak eta ahuldadeak.....	4
3. Jardun-ardatzak.....	6
4. Helburuak.....	9
5. Ekintzak.....	11
6. Ebaluazioa	18
7. Eranskinak.....	24
7.1. Zer egin dezaket seme-alabek irakur dezaten? (familientzat aholkuak edo pautak).....	24
7.2. Irakurketarako estrategiak.....	25
7.3. Irakurketarako teknikak eta dinamikak.....	29
7.4. Irakaslearen rola.....	33.

1. Sarrera

Testuingurua

Gure zentroa, Basakaitz HLHI, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoa da eta D eredukoa.

Gipuzkoan dago kokatua, Aizarnazabalgo udalerrian.

Haur-Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen ditu. 114 ikasle eta 16 irakasle ditu.

Egun gure ikasleria anitza da. Nahiz eta ikasleria handiena herrian bertan jaiotakoa den, jatorri askotako ikasleek eta familiek osatzen dute gure hezkuntza-komunitatea, beraz aniztasuna bada gure ezaugarria eta altxorra.

Garatu beharreko konpetentzien barnean honakoa dago Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia eta beronen barruan, irakurriaren ulermena. Hau horrela izanik, Irakurketa plan bat egitea erabaki da.

Zentroaren ibilbidea, irakurketarekin lotutako proiektuetan:

Gure eskolako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaz eztabaidatzeko, planifikatzeko eta zehazteko beharra antzeman dugu eta ondorioz jarraian, egunerokotasunean egiten ditugun, baina idatziz jarri gabe genituen zenbait erabaki plasmatu ditugu.

Dagoeneko eskolan badugu liburutegi bat hizkuntza ezberdineko liburu hornitua. Honetaz gain, eskolan urtero burutzen dira galtxagorri elkartearen eskutik liburuen altxorra ekimena eta idazleak ikastetxean programan ere parte hartzen dugu.

Gure formazioari dagokionean, aspalditik ari gara Elena Laiz-en eskutik irakurketaren eta idazketaren inguruko formazioa jasotzen, esperientziak elkartrukatzen eta irakurketak barne hartzen dituen faseak ere zeintzuk diren ikasten. Horretarako berak gomendatutako liburu eta testua erabili izan dira.

Psikogenesiari erreparatuz, frogak ere pasa izan zaizkie ikasleei irakurketaren zein fasetan dauden jakin ahal izateko eta fasea identifikatu ondoren, aurrera egiteko estrategia metodologikoak martxan izan ditugu.

Dena den aipatu bezala, sistematizazio baten beharra ikusten da eta irakasleriak martxan dituen jarduerari buruz hausnartu da eta erabaki bateratuak hartu dira.

2. Diagnostika

Irakurketaren inguruko indarrak eta ahuleziak:

Gure ikastetxean irakurketa eta irakurketaren ulermena bultzatzeko jarduera asko egiten ditugu. Duen garrantzia eman nahirik, gela bat liburutegi bihurtuta dago eta tailerretako espazio bat da momentuan, egunero erabiltzen dena.

Bertako material eta espazioaren antolaketa ere, irakurketa bermatzeko diseinatua dago.

Irakurtzen ikastea izango da lehenengo zutabea. Horretarako, ezinbestekoa da irakurketaz ari garenean, irakurtzea zer den denok berdin ulertzea eta irakurketaren garapena nola ematen den jakitea, bai irakaslegoak eta baita familiek ere. Hau horrela izateko, irakurketa irakasteko modua finkatu da. Irakaslegoaren zati handi batek, formazioa jaso du irakurketaren psikogenesiaren inguruan eta familientzat ere formazio saioak egiten dira, sistematizatu gabe dauden arren.

Irakurketa, aurretik esan den bezala, prozesu bat dela ulertzen dugunez, haur hezkuntzako etapan ikasleek irakurketarekiko harremanean burutzen dituzten jarduerak zaindu beharra ikusten da. Beti ere, ekintza erakargarriak burutuz eta ikaslea dagoen fasea identifikatu eta hurrengo fasera pasatzeko erronkak jarriz eta lanketa eginez.

Irakurketaren helburuak kontuan izanik, irakurtzeko uneak finkatuak daude ikastetxean, hala nola, ostegunetan egiten diren ipuin kontaketak eta LH 3. mailatik hasi eta 6. mailara arteko hurrekin egiten diren rotazioetan esaterako.

Gure hutsune edo ahulezia gure erabakiak sistematizatzean eta idatziz jasotzean dago.

Hau da, familientzako orientabideak idatziz jaso gabe dauzkagu, irakurketa arlo ezberdinetan txertatu behar dela badakigun arren, programazioetan ez da irakurketaren aipamen zehatzik egiten. Beraz, alderdi hauek hobetzea eta sistematizatzea beharrezkoak izango dira datozen urteetan.

Bigarren zutabe nagusia, **ikasteko irakurtzea** dela ulertzen dugu. Eta gure kasuan, arlo jakin batzuetan ikasteko irakurtzea txertatua eta sistematizatua daukagun arren, beste arlo batzuetan ez da hala. Ondorioz, sistematizatu gabe daukagun arloetan, idatziz jaso eta sistematizatzea beharrezkoa izango da.

Tailerretako espazioetan ere, tailer bakoitzean burutzen diren jarduerak, testu mota zehatz batzuk lantzeraz eramaten gaituzte, baina idatziz jaso gabe daukagu zein testu mota lantzen den eta landuko den etorkizunean, espazio bakoitzean.

Ikastetxean, hainbat dinamika burutzen dira irakurketarekin lotuta: "bikoteka irakurtzen", irakurketa partekatua, irakaslearen irakurketak, irakurketa diagonalak, etab.

Irakurketarako erabiliko diren testuen aukeraketarako irizpideak ere bateratu dira eta testua aurkezteko modua ere finkatu da, bai ikasle eta baita irakasleena ere.

Hirugarren zutabea **irakurzaletasuna bultzatzea** da, gure aburuz. Helburu hau lortzeko bitarteko nagusia irakurketa ohitura gelako egunerokotasunean txertatzea eta bermatzea izango da.

Gure liburutegia irakurzaletasuna bultzatzeko espazio zaindu bat da, bere arduraduna duena.

Alderdi hau garatzeko, bai eskolan, zein eskolaz kanpoko erakundeekin elkarlan bat egiten da. Dena den sistematizatu gabe dago eta idatziz jaso gabe.

Eskolan, hainbat jarduera burutzen ditugu: irakurketa libreak, tertulia dialogikoak, irakaslearen irakurketak gozameneko, jarduera osagarriak (liburuen altxorra, idazleak ikastetxean programa,....)

Eta eskolatik kanpo ere, inguruko elkarteekin harremanetan jarri gara irakurketa bultzatzeko; Zumaiaiko udal liburutegira bisita egin dute LH 1 eta 2. mailako ikasleek, Aizarnazabalgo Udal Liburutegiarekin ere harremanetan jarri gara eskolarako liburuak lortzeko eta udal liburutegiko karnetari dagokionean ere, ideia batzuk bururatu zaizkigu.

Familikoak ere, askotan etorri izan dira eskolara liburuak irakurtzera, baina gehienbat haur hezkuntzan eta sistematizatu gabe. Beraz, hemen ere zeregina egon daiteke.

Honetaz gain, eskolako komunikabidetan ere, bai Hitz eta Pitz irrati saioetan eta baita eskolako blog-ean ere irakurketari bultzada bat eman geniezaiokeela ikusi da.

3. Jardun ardatzak

Diagnostikoaren emaitzetan oinarrituta eta zentroaren premia nagusiak zein diren detektatuta daukagula, pentsatu dugu garrantzitsua dela honako hiru jardun-ardatz edo lan-ildo hauekin lotutako ekintzak lantzea:

1. “Irakurtzen ikasi”
2. “Ikasteko irakurri”;
3. “Irakur ohitura eta irakurzaletasuna”

1.- Irakurketaren garrantzia halakoa izanik, lehenik eta behin, jarraitzen dugu **“Irakurtzen ikasteko”** ardatza oinarritzen. Gure ikasle guztiek irakurketa-maila ahalik eta onena izan dezaten plangintza egokiena prestatu eta praktikan jarri nahi dugu. Lehen zikloko helburu orokorren artean, helburu nagusienetakoa dugu. Lan horretan, emaitza onak ematen dizkiguten jarduerak identifikatuak ditugu eta beraiekin jarraituko dugu. Bestalde, gure hezkuntza eskaintzaren eskutik ahalik eta emaitza hobetoak lortu nahian, beste programa, jarduera eta plangintza berri batzuen aldeko apustua egingo dugu.

Prozesu honetan garbi dugu, gure ikasleen artean aniztasuna handia dugula. Gure ikasleek duten irakurketa-maila ikasleek duten gaitasun maila bezain anitza da. Hori dela eta, garbi dugu guztiekin une berean ezin dugula jarduera

berdina, material berdinarekin lan egiten. **“Irakurtzen ikasteko”** dimentsio honetan, ikasleekiko helburu hirukoitza dugu:

1. Ikasle bakoitzari erantzungo dion irakurketa garapen partikularra eta propioa eskaintzea,
2. Ikasle bakoitza bere irakurketa prozesuaren protagonista egitea eta
3. Ikasle bakoitzak ahalik eta irakurketa maila onena eskuratzeko aukera eskaintzea. Honetarako:

3.1.- Ikastetxeak irakurketa estrategia eraginkorrenak eskeintzea,

3.2.-Irakurketako zailtasunen aurrean, aukera metodologiko desberdinak aztertzea eta eskaintzea.

3.3.-Irakurketa sendotzeko programa espezifikoak erabiltzea: bikoteka irakurtzen, esaterako.

3.4.-Sistematikoki bakarkako irakurketa prozesuak lantzeko plangintza egitea.

3-5-Irakurketa prozesuak indartzeko, zuzentzeko eta bideratzeko orientabide-plana prestatzea PTaren laguntzarekin.

2. “Ikasteko irakurri” ardatzari ere emango diogu arreta berezia, eta horretatik abiatuta landuko dira ekintza nagusiak, bereziki LH-ko 3. Mailatik aurrera. Dena den, aurretik esan bezala, helburua textua ulertzea denez, beti kontuan izango da helburu hau.

Garbi dugu, arlo askotan kontuan izan behar dela ardatz hau eta ondorioz, ikstetxeko programazioetan ere lekua egin behar zaiola helburu hau lortzea duten jardueri.

Irakurketa Plana prestatzeko lanak parez- pare joan behar du plana praktikan jartzeko lanarekin, horregatik, erabaki dugu plan horrek taxutuko duela zentroaren lana 2018- 2021 epearen hiru kurtsotan. Hala, aurreneko urtean hartuko diren erabakiak sendotu egingo dira hurrengo urteetan.

3.-“Irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna” ren inguruan garbi dugu zentroan egin behar dugula bere alde. Horretarako irakurketa libreari eta

liburutegiaren inguruko irakurketari ikasmilako ordutegietan denbora eta lekua egiten jarraituko dugu.

Ikasmila guztietan, hizkuntza guztietan, hizkuntzetako ordutegietan, irakurketarekiko une espezifikoak ditugu:

- irakurketa teknika taldean eta bakarka lantzeko unea;
- irakurketa librea lantzeko unea;
- irakurtzeko jarrera eta ohitura onak sustatuz,
- irakurtzen jarritz,
- irakurketa baloratuz, eta
- irakurketaz gozatzeko aukerak eskainiz(irakasleen irakurketa,...)

Bestalde, jarraituko dugu:

- liburu berriak erosten,
- liburuak gomendatzen, (galtxagorrikoen gomendioak kontuan izanez)
- euskal literaturako liburu onenak barneratzen,
- literatura unibertsaleko liburu onenak lantzen eta barneratzen,
- liburuak ez ezik, aldizkariak, egunkariak eta komikiak barneratzen,
- irakurketa partekatuz,
- irakurtzeko testuingurua (espazioa, materialak) zainduz.

4. Helburuak

<u>IRAKURTZEN IKASTEIA</u>	<u>IKASTEKO IRAKURTZEA</u>	<u>IRAKURKETA OHITURA ETA IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA</u>
<p>Irakasleekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Formazioa jasotzea Irakurketaren psikogenesiaren inguruan, ikaslea zein fasetan dagoen jakiteko eta hortik abiatzeko. Alde batetik, psikogenesiaren inguruan eta beste aldetik, testu mota ezberdinen ezaugarrien inguruan. - Irakurtzen ikasteko moduak adostu eta sistematizatu. - Ekintza erakargarriak diseinatu sistematikoki. - Irakurketarako uneak finkatu - Programazio didaktikoetan 	<p>Irakasleekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arlo guztietan ikasteko irakurketa txertatu eta sistematizatu. - Tailer bakoitzean lantzen diren testu motak idatziz jaso. - Zikloka, erabiliko diren irakurketa dinamikak sistematizatu. - Irakurketarako erabiliko diren testuak aukeratzeko irizpideak eta testua aurkezteko era bateratu eta idatziz jaso. <p>Ikasleekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testu ezberdinen aurrean jarri. Eta testu ezberdinen ezagutza bermatu. 	<p>Irakasleekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburutegiko espazioa zaindu. Giro goxo bat eskaini. - Ikasleentzat eredu izan. - Eskola barneko zein kanpoko erakundeekin elkarlana burutu. - Irakurzaletasun bultzatzeko jarduerak burutu era sistematizatu batean. - Denbora eta espazio bat diseinatu maila guztietan. - Jarduera osagarriak burutzerakoan irakurzaletasuna bultzatuko duten jarduerak ere burutu. - Liburutegia urtero hornitzen

<p>irakurketa jarduerak idatziz txertatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa ozena landu eta horretarako estrategiak finkatu. <p>Ikasleekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haurrak irakurketa egoeren aurrean jarri, txikitatik. - Irakurketa ozenean trebatu. <p>Familieekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familiei formazioa eskeini sistematikoki. - Familientzako pauta eta orientabideak idatziz prestatu eta familiei eman. 	<ul style="list-style-type: none"> - Testuak aurkezteko era argi izan. - Ikasteko irakurketa burutzeko dinamika ezberdinak ezagutu eta praktikan jarri. <p>Familieekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testu bakoitzaren erabilera zein izan daitekeen jakin. - Helduaren papera zein izan behar den jakin. (eranskinetan jasoa) 	<p>jarraitu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburu arrakastatsuen gure zerrenda egin. <p>Ikasleekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakurtzeko momentuak eskaini. <p>Familieekiko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familiako kideak gonbidatu maila guztietan. - Ahal den einean eredu izan. - Irakurzaletasuna bultzatzeko aholkuen berri izan. Ez presionatu, zigor moduan ez erabili irakurtzea.
--	--	---

5. Ekintzak

Ekintzen programazioa (2019-20 ikasturtea)

Jarduera ardatza	Helburua	Ekintza	Iraupena	Baliabideak	Adierazleak
<u>IRAKURTZEN</u> <u>IKASTEA</u>	1.1. Formazioa jasotzea irakurketaren psikogenesiaren inguruan, ikaslea zein fasetan dagoen jakiteko eta hortik abiatzeko. Alde batetik, psikogenesiaren inguruan eta beste aldetik, testu mota ezberdinen ezaugarrien inguruan.	-Irakasleentzako formazioa: erakunde ezberdinek antolatutako irakurketaren inguruko formazio saioetan parte hartu. Eta ondoren, klaustrokideei azaldu han jasotakoa. - irakurketaren inguruko jakintza liburuen zerrenda sortu eta arduradunak mailegu sistema bat jarri martxan.	2019-20 ikasturtean, 1. hiruhilekoan	-Berritzeguneko aholkulariak eta eskola txikietako formazio saioak - Eskolako esperientziak	Formazioa jaso da irakurketaren psikogenesiaren inguruan, ikaslea zein fasetan dagoen jakiteko eta hortik abiatzeko. Alde batetik, psikogenesiaren inguruan eta beste aldetik, testu mota ezberdinen ezaugarrien inguruan.
	1.2. Irakurtzen ikasteko moduak adostu eta sistematizatu.	Klaustrokideak elkartu eta adostutakoa idatziz jaso.	2018-19 ikasturte bukaera eta 2019-20 ikasturte hasiera	Irakurketa formazioko materiala, bileran zehaztu	Irakurtzen ikasteko moduak adostu eta sistematizatu dira
	1.3. .Ekintza erakargarriak diseinatu sistematikoki.	Egiten diren ekintzetatik arrakaslta izan dutenak koaderno batean edo ordenagailuan, idatziz jaso.	2019-20 ikasturtean, 1. hiruhilekoan	-Berritzeguneko aholkulariak eta eskola txikietako formazio saioak - Eskolako esperientziak	Ekintza erakargarriak diseinatu dira sistematikoki.

1.4 .Irakurketarako uneak finkatu.	Maila bakoitzak irakurketarako une egokiak zein diren adostu eta urteko planean txertatu.	Ikasturte hasieran, 1. hiru hilekoan	Ordutegiak Irakasleria	Irakurketarako uneak finkatu dira
1.5. Programazio didaktikoetan irakurketa jarduerak idatziz txertatu.	Programazio didaktikoetan irakurketa noiz erabiliko den idatziz jaso. Programazio ereduak berrikusi eta atal batean irakurketa atala txertatu.	Ikasturte hasieran zehaztu, bateratu eta ikasturte osoan erabili programazio eredu bera	Programazio txantiloa eta berritzeguneko aholkularitza	Programazio didaktikoetan irakurketa jarduerak idatziz txertatu dira
1.6.Irakurketa ozena landu eta horretarako estrategiak finkatu	Irakurketa ozena Lh ko gela guztietan egin (hhko haur batzuen kasuan ere): -Irakurketa aurrez prestatu (guraso, Irakasle,...) -irakasleak ziurtatu ikaslea prest dagoela. -Ikaslearen momentuaren araberrako testuak aukeratu.	Ikasturtean zehar	Antzerki saioak eta saio hauek aholkularitza eta berritzeguneko aholkularitza. 7.3.2. eranskina	Irakurketa ozena landu da eta horretarako estrategiak finkatu dira.
1.7 .Haurrak irakurketa egoeren aurrean jarri, txikitatik.	Bakoitzaren interesetatik abiatuta testuak aurkeztu irakurketa bultzatuz. Hasieran, hitz solteak... horiekin kontzientzia fonologikoa, dekodifikazioa landu.	Ikasturtean zehar	Liburuak, testu mota ezberdinak, irakurketa jarduerak...	Haurrak irakurketa egoeren aurrean jarri, txikitatik.
1.8.Irakurketa ozenean trebatu	-Beti aurrez prestatzeko	Ikasturtean zehar	Antzerki tailerreko	Irakurketa ozenean

		aukera eman. Zailtasunak dituztenei ia buruz ikasteraino. -Jendaurrean egin behar badute gai ziango direla ziurtatu. -Irakurketak grabatu eta garapena ikusi.		espazioa eta jarduerak eta irratsaioak.	trebatu dira ikasleak,
	1.9. Familiei formazioa eskeini sistematikoki.	-Bi urtetik behin gurasoentzat hitzaldi-tailerrak prestatu.	2019-20 ikasturteko 1. hiruhilekoan	Eskolako power point-a. https://drive.google.com/drive/folders/1VZ1zpsedSkYEmrHMqZ7hBWWoD8D-qetE	Familiei formazioa eskeini zaie sistematikoki.
	1.10. Pauta eta orientabideak idatziz prestatu eta familiei eman.	-Banakako elkarrizketetan aholkuak eta pautak eman.	Ikasturte hasierako, gelako bilera orokorretan	7.1. ERANSKINA	Pauta eta orientabideak idatziz prestatu eta familiei eman zaizkie.
<u>IKASTEKO IRAKURTZEA</u>	2.1.Arlo guztietan ikasteko irakurketa txertatu eta sistematizatu eta zikloka erabiliko diren irakurketa dinamikak zehaztu	Lan teknikak adostu irakasleon artean, batez ere, Lh 3- mailatik aurrera (laburpenak,...testu moten ezaugarriak,...)	Ikasturte hasieran	7.3. ERANSKINA	Lan teknikak adostu dira irakasleon artean, batez ere, LH 3- mailatik aurrera (laburpenak,...testu moten ezaugarriak,...)
	2.2. Tailer bakoitzean lantzen diren testu motak idatziz jaso.	<ul style="list-style-type: none"> - Arte tailerrean: komikiak, iragarkiak, katalogoak - Matematika tailerrean: 	Ikasturte osoan zehar	komikiak, iragarkiak, katalogoak, katalogoak, ipuinak, olerkiak, gutunak,	Arte tailerrean: komikiak, iragarkiak, katalogoak Matematika tailerrean: katalogoak

		<p>kataloagoak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburutegian: ipuinak, olerkiak, gutunak, iragarkiak, abestiak, asmakizunak, deskribapenak. - Dramatizazio tailerrean: elkarrizketak landuko dira. 		<p>iragarkiak, abestiak, asmakizunak, deskribapenak, antzerki testuak.</p>	<p>Liburutegian: ipuinak, olerkiak, gutunak, iragarkiak, abestiak, asmakizunak, deskribapenak. Dramatizazio tailerrean: elkarrizketak landu dira.</p>
	<p>2.3. Irakurketarako erabiliko diren testuak aukeratzeko irizpideak eta testua aurkezteko era bateratu eta idatziz jaso.</p>	<p>Honakoak izango dira irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -adina eta garapen maila - lantzen ari garen gaia - hizkuntzaren arabera, irudiak erakutsi edo ez erabaki da. Hau da, hizkuntza ulertzen den arabera irudiak gutxiago erakutsiko dira eta zenbaitetan ez da irudirik erakutsiko. - ilustrazioaren pisua kontuan hartuko da baina beti ere, irudimena lantzeko ahalik eta gutxien erabiliko da ilustrazioa. 	<p>1. hiruilekoan</p>	<p>7.2.ERANSKINA</p>	<p>Testuen aukeraketa, aurkezpen eta erabilera finkatu da</p>
	<p>2.4. Testu ezberdinen aurrean jarri. Eta testu ezberdinen</p>	<p>Testuen ezagutza izan behar dugu eta testuen</p>	<p>1. hiruilekoan</p>	<p>Iraleko formazioko</p>	<p>Irakasleriak testu mota ezberdinak eta</p>

	ezagutza bermatu.	ezaugarriak ezagutu		materiala	berauen ezaugarriak ezagutzen ditu.
	2.5. Testuak aurkezteko era argi izan.	Testu bat landu aurretik, eredu bat erakutsi eta gelan utzi. (buruak kokatzeko)	1. hiruhilekoan	7.2. ERANSKINA	Testuak aurkezteko era argi izan.
	2.6. Ikasteko irakurketa burutzeko dinamika ezberdinak ezagutu eta praktikan jarri.	-Irakurtzeko teknikak ezagutu: hitz klabeak azpimarratu, hitz gakoak ezagutu,..hau da, testua mamitu.	1. hiruhilekoan	7.3. ERANSKINA	Ikasteko irakurketa burutzeko dinamika ezberdinak ezagutu eta praktikan jarri.
	2.7. Helduaren papera zein izan behar den jakin. (eranskinetan jaso)	Familiei aholkuak eman	Hiruhileko bakoitzean eta batik bat 1. hiruhilekoan	7.1. ERANSKINA	Aholuen eranskina prestatu da.
<u>IRAKURKETA OHITURA ETA IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA</u>	3.1. Liburutegiko espazioa zaindu. Giro goxo bat eskaini.	-Hizkuntza ezberdinetako liburuak urtero berritu. -Arauak eta espazioa finkatu. Isiltasuna eskatu. -Erlaxazio giroa mantendu.	Ikasturte osoan zehar	-Tailerreko arautegia -Dirua	Liburutegiko espazioa zaindu. Giro goxo bat eskaini.
	3.2. Ikasleentzat eredu izan.	-Egunero tarte bat hartu ikasleei irakurtzeko. -Ikasleak irakurtzen daudenean heldua ere irakurtzen egon dadila. -Irakurri aurretik testua prestatu eredu egokia emateko (entonazioa, abiadura,...)	Ikasturte guztian zehar	7.4. ERANSKINA	Ikasleentzat eredu gara.
	3.3. Eskola barneko zein	Osteguneko irakurketa	- Ikasturte guztian zehar	Testu mota	Eskola barneko zein

kanpoko erakundeekin elkarlana burutu.	saioak maila guztietan burutu. Herriko liburutegiko arduradunarekin harremanetan jarri. Zumaiako liburutegiko funtzionamendua, espazioa etab. ezagutzeko eta gozatzeko irteera egin. Igeriketako denboraldia aprobetxatuz.	ostegunero. -Batez ere ikasturte hasieran, IUP-an txertatzeko.	ezberdinak Zumaiako eta aizarnazabalgo liburutegiko arduradunekin harremanetan jarri.	kanpoko erakundeekin elkarlana burutu.
3.4. Irakurzaletasun bultzatzeko jarduerak burutu era sistematizatu batean.	-3.mailatik 6. Mailara arte ostegunetako saioak errotazioen bidez.	Ikasturte hasieran antolaketa, ikasturte osoan zehar burutu.	Tailerretako irakasleen esperientzia.	Irakurzaletasun bultzatzeko jarduerak burutu era sistematizatu batean.
3.5. Denbora eta espazio bat diseinatu maila guztietan.	5 eta 6. Mailako A gelan espazio goxo bat diseinatu.	Ikasturte hasieran	Dirua	Denbora eta espazio bat diseinatu maila guztietan.
3.6. Jarduera osagarriak burutzerakoan irakurzaletasuna bultzatuko duten jarduerak ere burutu.	-Idazleak ikastetxean programan parte hartu. -Liburuen altxorra egitasmoa	Ikasturtean zehar	Deialdiak	Jarduera osagarriak burutzerakoan irakurzaletasuna bultzatuko duten jarduerak ere burutu.
3.7. Liburu arrakastatsuen gure zerrenda egin.	-Ikasleen iritziak jasotzeko txantiloia eta jarduerak sortu. -Hiruhileko bakoitzaren bukaeran liburutegiko arduraduna beste irakasleekin elkartu eta	Hiruhilabete bakoitzaren bukaeran.	Txantiloia Galtxagorri taldearen zerrenda.	Liburu arrakastatsuen gure zerrenda egin dugu.

		hiruhileko horretan arrakasta izan duten liburuen zerrenda egingo dute. -Liburutegi tailerlean eta Irakasle karpetako liburutegi karpetan gordeko dugu. -Galtxagorriko zerrenda.			
	3.8. Irakurtzeko momentuak eskaini.	-Irakurketa librea liburutegian edo,.. gero lan gehigarriak eskatu gabe. -Irakaslearen irakurketa ozena egin, liburu-textu aukeratuak, geroko lanik gabe. -Liburuak aurkeztu. Irakaslea irakurtzen ari dena, ikasleek dituztenak, eskolarako erosiak.	Ikasturtean zehar, dena den antolaketa IUP-an jasoko da.	Liburu erakargarriak	Irakurtzeko momentuak eskaini dira.
	3.9. Familiako kideak gonbidatu maila guztietan.	-Goian aipatutakoa familia kideren batek egin. -Zaletasuna bultzatzeko aholkuak.	- Ikasturtean zehar. - Familiekin egiten diren elkarrizketetan.	7.1. ERANSKINA	Familiako kideak gonbidatu ditugu maila guztietan.
	3.10. Ahal den einean eredu izan.	-Erakutsi irakasleok ere irakurtzen dutela. -Beraien aurrean irakurri. -Irakurtzen duguna komentatu. -Ohituraz hitz egin,...	Ikasturtean zehar	7.4. ERANSKINA	Ahal den einean eredu izan gara.

	3.11. Irakur zaletasuna bultzatzeko aholkuen berri izan. Ez presionatu, zigor moduan ez erabili irakurtzea	Irakurzaletasuna bultzatzeko aholkuak idatziz jaso.	Kurtso hasieran	Eranskinetan	Irakurzaletasuna bultzatzeko aholkuen berri eman zaie familiei. Ez presionatu, zigor moduan ez erabili irakurtzea.
--	--	---	-----------------	--------------	---

6. Ebaluazioa

<u>IRAKURTZEN IKASTEIA</u>	1.1. Helburua: Formazioa jasotzea irakurketaren psikogenesiaren inguruan, ikaslea zein fasetan dagoen jakiteko eta hortik abiatzeko. Alde batetik, psikogenesiaren inguruan eta beste aldetik, testu mota ezberdinen ezaugarrien inguruan.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	1.2. Helburua: Irakurtzen ikasteko moduak adostu eta sistematizatu.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	1.3. Helburua. Irakurketarako erabiliko diren testuak aukeratzeko irizpideak eta testua aurkezteko era bateratu eta idatziz jaso.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

1.4. Helburua: Testu ezberdinen aurrean jarri. Eta testu ezberdinen ezagutza bermatu.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
1.5. Helburua: Irakurketarako uneak finkatu.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
1.6. Helburua: Programazio didaktikoetan irakurketa jarduerak idatziz txertatu.			
1.7. Helburua: Irakurketa ozena landu eta horretarako estrategiak finkatu			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
1.8. Helburua. Haurrak irakurketa egoeren aurrean jarri, txikitatik.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
1.9. Helburua: Irakurketa ozenean trebatu.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

	1.10. Helburua: Familiei formazioa eskeini sistematikoki.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	1.11. Helburua: Pauta eta orientabideak idatziz prestatu eta familiei eman.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

<u>IKASTEKO IRAKURTZEA</u>	2.1. Helburua: Arlo guztietan ikasteko irakurketa txertatu eta sistematizatu eta zikloka erabiliko diren irakurketa dinamikak zehaztu			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	2.2. Helburua: Tailer bakoitzean lantzen diren testu motak idatziz jaso.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	2.3. Helburua: Irakurketarako erabiliko diren testuak aukeratzeko irizpideak eta testua aurkezteko era bateratu eta idatziz jaso			

	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	2.4. Helburua: Testu ezberdinen aurrean jarri. Eta testu ezberdinen ezagutza bermatu.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	2.5. Helburua: Testuak aurkezteko era argi izan.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
	2.6. Helburua: Ikasteko irakurketa burutzeko dinamika ezberdinak ezagutu eta praktikan jarri.			
	2.7. Helburua: Helduaren papera zein izan behar den jakin. (eranskinetan jaso)			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

<u>IRAKURKETA OHITURA ETA IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA</u>	3.1. Helburua: Liburutegiko espazioa zaindu. Giro goxo bat eskaini.			
	Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

3.2. helburua : Ikasleentzat eredu izan.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.3. helburua. Eskola barneko zein kanpoko erakundeekin elkarlana burutu.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.4. Helburua: Irakurzaletasun bultzatzeko jarduerak burutu era sistematizatu batean.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.5. Helburua. Denbora eta espazio bat diseinatu maila guztietan.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.6. Helburua: Jarduera osagarriak burutzerakoan irakurzaletasuna bultzatuko duten jarduerak ere burutu.			
3.7. Helburua. Liburu arrakastatsuen gure zerrenda egin.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.8. Helburua. Irakurtzeko momentuak eskaini			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

3.9. Helburua Familiako kideak gonbidatu maila guztietan.			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.10. Ahal den einean eredu izan			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena
3.11. .Irakur zaletasuna bultzatzeko aholkuen berri izan. Ez presionatu, zigor moduan ez erabili irakurtzea			
Betetze maila	Eraginkorasuna	Alderdi positiboa	Hobetzeko proposamena

7. Eranskinak. Ekintzak gauzatzeko material erabilgarria.

7.1. ZER EGIN DEZAKET SEME-ALABEK IRAKUR DEZATEN? (familientzat aholkuak edo pautak)

- Lagundu, ez behartu.
- Eskolako lanen jarraipena egin.
- Irakurtzeko leku lasaia eta giro egokia prestatu.
- Egitekoak antolatzen lagundu: denbora, liburuak...
- Interesa erakutsi semeak edo alabak egiten duenaz, ezagutzak eta liburuak partekatuz, interneten informazio bilaketak eginez...
- Adi egon eta zalantzak argitzen lagundu.
- Informazio- eta kontsulta-lan egokiak aukeratu.
- Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko aukera eman etxean.
- Interneten lagundu eta elkarrekin nabigatu.
- Haiekin joan liburu dendetara, liburu azoketara, erakusketetara...
- Liburutegiko bazkide egin.
- Irakurtzea ohitura bihurtu.
- Liburuak aukeratzeko askatasuna eman; libururik ez debekatu.
- Haien adinerako egokiak diren liburuak eskaini.
- Haiekin irakurri.
- Irakurritako liburuen inguruan hitz egin.

7.2. IRAKURKETARAKO ESTRATEGIA IRAKASLEARENTZAT:

IRAKURRI AURRETIK:

-TESTUAREN AUKERAKETA ETA KONTESTUALIZAZIOA

- Testu errealak eta euskarri errealak aukeratu ahal den eanean.
- Zentzua daukaten testuak aukeratu.
- Zein helbururekin irakurtzera goazen argi eta garbi jakin behar dugu eta ikasleei adierazi.
- Testua kokatu, aurkeztu, ipuinari sarreratxo bat egin, hau da, gutxieneko informazio bat eskaini.
- Irakurketaren ondoren zer egingo dugun, zertara goazen jakin behar dute ikasleek.

- PLANIFIKAZIOAK (irakurri aurretik)

- Testuaren AURRERAPENA da.
- LORTU behar duten zerbait agertu behar da.
- Planifikazioan EZ DIRA ideiak aipatzen.
- Planifikazioa laburbilketan bete egin behar den KONPROMISOA da.
- Planifikazioak eta laburbilketak KOHERENTEAK izan behar dute.

IRAKURRI BITARTEAN:

- Antzipazioa, predikzioa bultzatu. Baina, ez zer datorren “asmatzea”, datu guztiak kontuan izanda zer izan daitekeen pentsatzea edo antzematea baizik.
 - Egindako hipotesiak frogatzen joan.
 - Predikzioen autozuzenketak egin. Hipotesietan oso oker badabiltza zerbait gaizki ari diren seinale.
- Autozuzenketa hauek irakasleak egindakoak baino hobeak izango dira beti.

- Esanahiaz jabetzen ari diren heinean egingo dute aurrera. Hitz batean ataskatzen badira, ez gelditu arazi, segi dezatela aurrera, saiatu daitezela antizipazio logikoak egiten.

LAGUNTZA EMATEA: MODU EZBERDINAK

• ERREGULATZAILEAK

Galderarekin doan laguntza da. Testuinguru bat sortzen dute baina erantzuna ez da ematen. Erantzuna arrakastatsua izatea nahi da. Ikasleak autonomia du.

Galdera irekia egitean agian ez dugu jasotzen guk nahi dugun erantzuna horretarako, laguntza eskaini behar diegu.

Adibidez: eskeletoaren funtzioak hurrengo paragrafoan azaltzen dira. Irakurri eta horietako bat esango didazu?

• BARNEKOAK

Ikaslearen erantzunarekin batera doa. Ongi erantzuten badu, aurrera. Ez badu guk nahi duguna erantzuten bi eratako laguntzak daude: inbasiboak eta ez inbasiboak.

Inbasiboak: Ikasleak erantzun du baina ez da erantzun egokia. Ikasleari erantzunaren zati bat ematen zaio osa dezan. Baita ere BAI/EZ erantzun baten bidez. Ikaslearen autonomia oso urria da.

Adibidez: Nora joan zen protagonista, Marokora ala Senegalera?

Ez inbasiboak: Ikasleak erantzun du baina ez da erantzun egokia. Animatu egiten dugu ikaslea beste aukera edo pistaren bat ematen. Hauetan erantzuna ez da agertzen, erraztu egiten die aurkikuntza. Beste ikasle bati galdetzen diogu.

Adibidez: Ziur al zaude? Hobeto pentsatu.

- **FEEDBACK-EKOAK**

Ikaslearen erantzun egokiaren atzetik doaz. Honekin ongi erantzun duela baieztatu egiten zaio eta autonomia dauka ikasleak. Baita ere erantzuna aberasteko balio dute. Hemen ikasleak ez du halako autonomia.

IRAKURRI ONDOREN ZER:

GALDERAK

- **INFORMAZIOA AUKERATZEKOAK.**

Ikasleen atentzioa testuko ideia nagusietara zuzenduko dutenak izango dira.

Erantzuna testuan bertan dago.

- **INFORMAZIOA ANTOLATZEKOAK**

Testuan azaltzen diren ideia desberdinak erlazionatzera, konexioak egitera bideratuak egongo dira. Hau da, buru eskemak egitea.

- **INFORMAZIOA INTEGRATZEKOAK**

Aurrezagutzak testuko ideiekin lotzeko aukera ematen dutenak dira. Erantzuna ez dago testuan. Abstrakzioa egitea daramatzate. Testutik haratago doa.

- **TESTUA MODU KRITIKOAN BERRIKUSTEKOAK.**

Testuak informazioa azaltzeko moduari buruzkoak dira, ikasleak ulertzeko martxan jarri behar dituen prozesu mentalei buruzkoak. Testuaren formari eta edukiari erreparatuko diote.

LABURPENAK:

- Laburbilketa ondorio bat da (konklusioa bat).EZ DU LUZEA izan behar.
- Laburbilketan IDEIA NAGUSIAK edo oinarritzkoenak bakarrik agertu behar dute.

- Laburbilketa batean ideiak AGERIAN egon behar dute. Ez da nahikoa zerrendatze bat.
- Laburbilketak, nolabait, baieztatu egiten dute PUBLIKOKI ideiak ulertu egin ditugula.
- Errutina bihurtzea lortu behar da. Ez du axola zer tipokoa.

POWER POINT-AK EGIN LANDUTAKO GAIAREKIN LOTUTA

INFORMAZIOA ERABILIZ, BESTE TESTU BAT SORTU.

ERRESEÑA BAT.

KONPARATU: BESTE TESTU BATZUEKIN, BESTE EGILE BATEKIN,...

EDO EZER EZ.

Beste estrategia batzuk:

- **Entzutea.** Beste batek ozen irakurritakoa. Irakasleak egunero irakurri behar lieke ikasleei. Ikasle guztiei, ez txikiei bakarrik.
- **Testua gainbegiratzea.** (titularrak bakarrik, argazki oinak bakarrik, paragrafo hasierak bakarrik...) "Lectura diagonal" delakoa oso garrantzitsua da bizitzan eta eskolan ere landu behar da. Zer bilatu nahi dugu? Horren araberako irakurketa egin.
- **Isilik irakurtzea.** Honek izan behar luke estrategia nagusiena, hau landu behar da gehien.
- **Testu mota desberdinak irakurtzea.** (ipuinak, olerkiak, albisteak, errezetak, kartelak, iragarkiak, menuak, egitarauak ...) Ahal bada bere testuinguruan, bere formatoan... Beti zentzua duen egoeran.

7.3. IRAKURKETARAKO TEKNIKAK.

<https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>

<https://sites.google.com/berritzegunenagusia.eus/eskolatxikienirakurketa/plana>

7.3.1. EGITEN DIRENAK:

- SOLASALDI LITERARIOAK:

● Helburuak:

Literaturaz gozatzea.

Partaide guztien artean testuaren esanahia eraikitzea,

Argudiatzen ikastea.

Balio positiboak lantzea.

● Metodologia:

-Solosaldea baino lehen, parte hartzen dutenek aurrez zehaztutako kapitulua edo orrialde kopurua irakurtzen dute. Irakurleek atentziora eman edota gogoeta sorrarazi dieten paragrafoak, atalak edo esaldiak aukeratzen dituzte eta markatu egiten dituzte pos-itak erabiliz edo azpimarratuz.

-Saioan, ikasleek, hitz egiteko txanda eskatuta, ozenki irakurtzen dute aukeratutako atala eta zergatik aukeratu duten azaltzen dute. Besteek, irakurritakoaren inguruan argudiatu dezakete edo kontrako iritzia eman.

-Solasaldiaren moderatzaileak, tutorea gehienetan, hitz egiteko txandak arautzen ditu eta parte hartzera animatzen ditu ikasleak. Ekarpinak egiten dituzten ikasleen izenak idazten ditu. Tutorea beste kide bat da taldean, beraz, ezin du bere iritzia ezarri.

- Etxean egiten da aurrez adostutako atalaren edo kapituluaren banakako irakurketa. Hala ere, irakurtzeko zailtasunak dituen ikaslerik badago eskola orduetan prestatuko da irakurketa.

- **IRAKURKETA OZENA**

Irakasleak edota ikasleek egindako boz gorako irakurraldi on batek irakurketaz gozatzeko aukera ematen du: irakurtzen duenarentzat jarduera atsegina da eta entzuten duenarentzat, berriz, gozagarria. Boz gorako irakurketa ikastetxeko liburutegian edota ikasgelan egin daiteke. Ondo hautatu behar dira irakurri eta partekatuko diren testuak. Horrez gain, beharrezkoak dira planifikazioa eta entrenamendua, irakurketa eraginkorra eta ona izan dadin. Ikasleei, irakurtzeko gaitasuna sendotu ahala, proposa dakiekie, noizbehinka eta denbora-tarte laburretan, gelako beste kideei testuak ozenki irakurtzea. Horretarako, denbora eman behar zaie irakurketa prestatzeko, bai etxean, bai ikasgelan edo ikasgelatik kanpo beste irakasle batekin...; betiere irakurketa ona egingo dutela egiaztatuz, jarduera hori bai entzuleentzat, baita irakurlearentzat ere, atsegina izan dadin.

AHOLKUAK:

- Ikasleekin puntualki landu eta beti ulermena lehenetsiz, baina **landu behar** da.
- **Irakasleak sarri** irakurri ikasleei.
- **Entzutea** didaktikoki ere landu.
- **Egoera errealetan** erabili eta aurrez **ondo prestatzeko aukera** eman.
- Testua **hobeto ulertzeko** estrategia bezala ere erabili (ondo ulertu ez dena ozen irakurri ea horrela...).
- **Umeak idatzi duena** irakasleak “hobetuz” irakurtzeko ere erabili.
- Irakurketa ozena **teatralizatu, interpretatu**.

- **BIKOTEKA IRAKURTZEN.**

https://drive.google.com/drive/folders/10S885Cz3s3ptl_mwbQkBHKPc8j6xT6kj

<https://sites.google.com/a/berrigasteiz.com/arabanbikotekairakurtzen/irakaslearentzat/bestelako-materialak>

Ikasleen artean bikoteak egiten dira, bat tutorea izango da eta bestea tutorizatu. 1. Saioan bakoitzaren funtzioak idatziz idazten ditra eta gelan ikusgai jartzen dira.

Honekin batera, gurasoekin bilera bat egiten da aurrez etxetik egin beharreko lana zehztuz (power point).

Astero testu mota ezberdina bat ematen dio irakasleak ikasle tutoreari. Egun batzuk izaten ditu etxean testua prestatu eta galderari erantzuteko.

Saioa egiten denean, tutoreak irakurri egiten du eta ikasle tutorizatuak ohiartzun moduan irakurtzen du.

Helburua irakurketa eta irakurriaren ulermena lantzea da.

- **OSTEGUNETAKO IRAKURKETA ESKAINTZAK**

Ostegunero hizkuntza ezberdinetako helduen irakurketa eskaintzak burutzen dira. Hilabete oso batean, hizkuntza ezberdinetan liburuen eskaintza egiten da: euskarazko bi liburu, gaztelarazko bat eta ingelazko bat.

Bi aste jarraian liburu berdinen irakurketan egon daiteke ikaslea, baina 3. Astean liburu ezberdin baten irakurketara joan behar du ikasleak.

Horrela, hizkuntza ezberdinetan ikasleak ulermena hobetzea lortu nahi da.

- **ASTEKO ERRONKA**

Astero ikasle batek asteko erronkaren gaia aukeratzen du.

Ondoren, galdera horren baitan, ikasleek informazioa bilatu behar dute eta gelakideei jasotako informazioa ahoz kontatu behar diete.

Honekin batera, irakasleak gaiaren inguruko testu bat ekartzen du eta beharrezko informazioa aurkitu ondoren, ostiraletan asteko erronka horren erantzuna idatziz jasoko da.

7.3.2. ORAIN EGITEN EZ DIRENAK BAINA EGIN DAITEZKEENAK:

- **SEI IRAKURLE TESTU BATEN BILA**

Irakurketa-jarduera hau taldeka egiten da, sei ikasleko taldeetan eta taldekide bakoitzak zeregin bat du irakurketa-xedearen arabera.

Irakasleak proposatzen ditu rolak:

- Irakurlea. Testua ozenki irakurtzen du. Ikasle guztiek dute testuaren kopia.
- Detektibea. Eten egiten du irakurketa ongi ulertzen ez dituen hitzak edo hitz “zailak” entzuten dituenengan.
- Galdetzailea. Entzun ahala, bere iritziz falta diren datuak galdetzen ditu. Testua behar bezala ulertu ahal izateko egin beharko liratekeen galderak egiten ditu.
- Kazetaria. Testuaren atalak laburtzen ditu; taldekoen ‘oroimen’ gisa funtzionatzen du.
- Jakintsua. Bere iritziz interesgarriak diren beste ideia, informazio edo datu batzuekin erlazionatzen du irakurgaia.
- Igarlea. Irakurleak, momentu jakin batean edo amaiera baino lehen, utzi egiten dio irakurtzeari, eta igarleak igarri egin behar du zein den atal horren edo testuaren amaiera.

- **GIZA-LIBURUAK**

Proposamen honek beste pertsona batzuekin, hau da, entzuleekin, lotzen ditu hitzak eta irakurketa. Ekimenean parte hartzen duen irakurleak pentsatu behar du liburua balitz zein liburu edo zein testu izango litzatekeen. Gero, hautatutako testutxatara ongi ulertu, eta buruz ikasten du. Hala, ‘giza-liburu’ bihurtzen da, eta bestepertsona batzuei errezitatuko die buruz ikasitakoa. Jarduera hau aurrez planifikatutako eta antolatutako parametroen arabera egin daiteke, esaterako, literatur testuak hauta daitezke, eta egun berezi batean edo ospakizunen batean, ‘giza-liburuek’ buruz ikasitako pasarteak errezitatuko dizkiete bertaratuko direnei.

7.4. IRAKASLEAREN ROLA

- Lagundu, erraztu, beldurra eta larritasuna kendu. Zailtasunak dituztenei ozen irakurri eta entzun dezatela, edo grabatu eta haren gainetik irakurtzen jarri ...
- Esanahiak irakurtzera bideratu (ez hitzak, fonemak...). Esanahiak bilatzea beste edozeren gainetik jarri.
- Umearentzat zentzua duten ekintzak proposatu.
- Ume bakoitzaren prozesua hartu oinarri (psikogenesia), ez metodoak edo irakurketa arauak.
- Isilean irakurri.
- Asko irakurri beraiei eta asko irakurri beraiekin (zati bat guk bestea beraiek...).
- Ulermena hobetzeko lagun arteko kooperazioa ere bilatu.
- Lantzen ari garen testua guk grabatuta eman etxean “irakurri” dezaten.
- Zertarako irakurri behar dugun adierazi. Helburua adierazi.
- Irakurriko duguna testuinguruan ipini (guk) eta irakurri duguna laburtu (guk).
- Tipografiaz eta material motaz ere baliatu zer jarri dezaken aurreratzeko.
- Antzipazioa bultzatu. Hipotesiak egitera eta egiaztatzea (auto zuzenketa), berriak egiteko.
- Mota askotako testuak eta materialak eskaini (esanguratsuak).
- Testu onak berrirakurri (beste helburu batzuekin...).
- Akatsak onartu, egitera bultzatu. Akatsik ez bada egiten zerbait gaizki doa.
- Irakurketan jarraitzera animatu, arriskatzera. Ez moztu (zuzentzeko edo laguntzeko...).
- Eredu onak izan (irakurri beraien aurrean, iritzia eman, komentatu, kritika egin...).
- Profesionalak izan. Egiten dugunaz gogoeta egin eta azken ikerketak ezagutu.
- Ez bihurtu arazo arazo ez dena (erritmo desberdinak, “zailtasunak”...). Ume hauek ez larritu, ez beldurtu, ez saiatu irakurketaren garrantzia

azaltzen... Hitz zailak lantzen ez jarri, ez metodorik aldatu beraientzat, ez lan berezirik prestatu... utzi pakean eta asko lagundu beraiei dagokiena geuk irakurriaz edo grabatuz...

- **Ez dago gauzak ondo egiteko modu bakarra, ezta irakasle ona izateko ere.**

EZ EGIN:

- **Zigortzeko** erabili. (“... egin duzulako jolastokira irten gabe irakurtzen geldituko zara”).
- Gaizki ari denaren **akatsak nabarmendu**.
- Ikasleak **larritu edo beldurtu** agindutakoa zailegia delako beraientzat edo egoerak gainditzen dituelako.
- Irakurri ondoren **ulermen galdera “tipikoak”** egin.
- Testuan **saltoak aurrera edo atzera** egiten ez uztea.
- **Testu aspergarriak**, txarrak edo interesik gabeak eskaini.
- Testua **aukeratzen ez utzi**.
- Testu berdinarekin bat irakurtzen eta besteak jarraitzen ipini **zatitxoka txandak** eginaz (agian batzuetan justifikatua egon daiteke, adb. antzerkia irakurtzerakoan).